

## MUko hiru ikaslek parte hartu dute Uhainako surf txapelketan

2015/03/30

Martxoko azken asteburuan, Frantziako unibertsitate arteko Surf lehiaketan parte hartu dugu. Urtero bezala Frantziako unibertsitateekin dugun elkarlanean kokatzen dugu ekintza hau.

Inguruko txapelketetan emaitza onak bazituzten ere, Frantziako final hauetan aurrera egitea zaila izan zen lehiaketaren maila altuarengatik.

Horrela, aurrera egin zuen MUko ordezkari bakarra, Joseba Berasategi (Enpresagintza) izan zen, surfeko modalitateko finalera helduz. Bertan, ez zuen leku aproposa hartzea lortu eta laugarren bukatu zuen.

Txapelketa amaitzeko, lau taldeko modalitatean (tag team) ere aritu zen MU (ikasle frantziar baten laguntzarekin) eta bost taldeetatik hirugarren bukatu zuen.

Beti bezala, eskerrik asko gure frantziako lagunei gonbidatzeagatik eta ikasleei parte hartzeagatik.

Asteburu polita izan zen guztiontzat.

Argazki

gehiago: <https://www.facebook.com/MondragonUnibertsitatekoKirolZerbitzua>

